

# Mugarik gabeko zientzia

Eureka! Zientzia Museoak eta Cit e de l'Oc ean-ek mugaz gaineko esperientzia didaktiko paregabe batetaz gozatzeko aukera eskeintzen dizu: bi museo esanguratsuetara bisita egun berean. Osagarri diren bi ikuspuntutatik hurbilduko gara zientziara, nahiago duzun hizkuntzan (euskara, frantsesa, ingelesa edo gaztelania), eta noski, ahalik eta prezio hoberenean!

Bisita bateratuaren ordutegia honakoa da:

10etatik-12etara: Jarduera (Eureka!-n edo Cit e-n)

Bazkaltzeko atsedenaldia eta bidaia

14etatik-16 etara: Jarduera (Eureka!-n edo Cit e-n)

**PREZIOA:** 11,50   ikasleko

## EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA (DONOSTIA)



Eureka! bisitatzen duten taldeek bi jarduera egingo dituzte: batetik, bisita gidatu orokor bat eskeiniko diegu museoan barrena eta bestetik, tailer edo planetarioko saio bat egingo dute, Cit e de l'Oc ean-en landutako gai didaktikoekin koordinatuz. Aukeratu daitezkeen tailer eta saioak hauek dira, mailetan sailkatuta:

### **Tailerrak**

- |                            |             |
|----------------------------|-------------|
| - Uraren hamaika aurpegiak | LH2         |
| - Presio atmosferikoa      | LH3         |
| - Lurra Unibertsoan        | DBH1        |
| - Kimikaren magia          | DBH1        |
| - Energia alternatiboak    | DBH2        |
| - Akzioa ... erreakzioa!   | Batxilergoa |

### **Planetarioko saioak**

- |   |                     |
|---|---------------------|
| - Lurra eta Ilargia, lagun espazialak (Planetario Txikia) | LH1                 |
| - Zeruko mugimenduak                                      | LH2/ LH3            |
| - Eboluzioa   | DBH1-2 /Batxilergoa |

Bisitari zehar ikasleak museoeko begiraleekin egongo dira uneoro.

Informazio gehiago [www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es) webgunean

## CITÉ DE L'OCÉAN (BIARRITZ)



Cité-ra egingo duten bisitan, ikasleek unibertso eta gai ezberdinak lantzeko aukera izango dute. Bertako pedagogi taldeak, Eureka!ko hezitzaileekin batera, egitarau bat landu du, talde bakoitzaren mailara egokituko den gaiak proposatu ahal izateko.

- Lurra planeta, itsaspeko erliebeak, mareak, ozeanoen jaiotza: LH1
- Uraren papera ozeanoetan, ozeanoetako glaziarrak: LH2
- Ekaitzen eraketa, ekaitzak nabigazioan, haizea eta olatuen jatorria, urpeko presioa: LH2, DBH1-2
- Nodulu metalanitzak, Lurraren eraketa eta uraren sorrera, turbinak: DBH2
- Lurraren eraketa eta uraren sorrera, ozeanoak eboluzio sorleku gisa, animalien egokitzea toki berezietara (amildegiak eta poloetako ozeanoak): DBH2 eta Batxilergoa

Gai hauek maila ezberdinetara egokitu daitezke, ez da berdina azaltzen eta xehetasun maila ere ezberdina da. Irakasle bakoitzak bere posibilitate eta beharren arabera, egitarau hau egokitzea eskatu dezake. Erreserba egiteko unean, gehien interesatzen zaion aukera eskatu dezake. Bisita hau modu ludiko batean egingo da, Cité de l'Océan museoak eskura jartzen dituen teknologia berriko tresnen laguntzarekin.

Informazio gehiago <http://www.citedelocean.com/eu> webgunean.

### ERRESERBA NOLA EGIN

Cité de l'Océan: (00 33) 5 59 22 33 34 edo e-mail bidez: [contact@citedelocean.com](mailto:contact@citedelocean.com)  
Eureka! Zientzia Museoa: (00 34) 943 012 917 edo e-mail bidez: [reservas@eurekamuseoa.es](mailto:reservas@eurekamuseoa.es)

Eguneko gehienez 25/30 ikasleko bi talde hartu ahal izango dugu.

Bisitak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez zein ingelesez egin daitezke.

Erreserba egiterakoan, taldeak zein museotatik hasiko den aukeratu beharko du eta zenbat ikasle diren ere esan beharko du.

Eskaintza hau, LH1etik hasi eta Batxilergoko edota Formakuntza Zikloetako ikasleei dago zuzenduta.

### GARRAIORAKO LAGUNTZAK

Erreserba egiterakoan kontsultatu